

Unitate didaktikoa

Mikrofinantzak

Mailegu txikiak, inpaktu handiak



Egilea



Koordinazioa



Honako hauen babesarekin:



Aurkibidea

1.	Unitate didaktikoaren laburpen-fitxa	3
2.	Sarrera eta justifikazioa	5
3.	Metodologia	6
4.	Edukien eskema orokorra	8
5.	1. saioa: Zer zerikusi dute bankuek eta pobreak?	9
5.1	Saioaren helburuak	9
5.2	Garapena	9
5.3	Baliabide gehigarriak	11
6.	2. saioa: Nola funtzionatzen dute mikrofinantzek?	12
6.1	Saioaren helburuak	12
6.2	Garapena	12
6.3	Baliabide gehigarriak	14
7.	3. saioa: Mikrofinantzen eragina	15
7.1	Saioaren helburuak	15
7.2	Garapena	15
7.3	Baliabide gehigarriak	17
8.	Ondorio gisa	18
Eranskina:	baliabide didaktikoak	20




Aitortu-Ez Komertziala-Lan Eratorririk Gabe 4.0


Dokumentu hau Creative Commons lizentzia baten pean dago. Obra hau askatasunez kopia, banatu eta publiko-ki komunikatu ahal izango da, betiere egilea nor den aitortzen bada eta helburu komertzialetarako erabiltzen ez bada. Obra honetatik eratorritako obra ezin da aldatu, eraldatu edo sortu.

Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>

UNITATE DIDAKTIKOAREN LABURPEN-FITXA



**Mikrofinantzak:
mailegu txikiak,
inpaktu handiak**



Xede-publikoa:

DBHko 4. mailako, Batxilergoko 1. eta 2. mailako ikasleak.



Unitate didaktikoaren helburuak:

- Finantza-produktuen funtzio soziala eta finantza-bazterketaren fenomenoak ulertzea.
- Mikrofinantzei buruzko ikuspegi osoa, eraikitzailea eta kritikoa izatea, horiek diru-sarrerara txikiko pertsonen aldeko finantza-zerbitzu gisa ulertuta.
- Mikrofinantza-programen funtsezko ezaugarriak ezagutzeko.
- Mikrofinantzen eragina kritikoki aztertzeko gai izatea.

Baliabide didaktikoak

Unitate didaktikoaren gidak, helburuak eta metodologia orokorra deskribatzeaz gain, hiru saioetako bakoitzaren deskribapen zehatza egiten du. Saio bakoitzeko material didaktikoak (aurkezpenak, bideoak, dinamikak, eta abar) gidaren eranskin gisa jaso dira.

Saioen ordena ezin da aldatu, azalpenak logika jarraia izan dezan.

Saio bakoitzean, gainera, saioen garapena sakontzeko edo egokitzekeo interesgarriak izan daitezkeen baliabide gehigarriak buruzko erreferentziak jasotzen dira, irakasleek edo dinamizatzaileek hala uste badute.

Unitate didaktiko hau ikastetxeko irakasleek unitatea dinamizatu ahal izateko dago diseinatuta; izan ere, irakasleek alde aurretik ezagutu beharko dute unitatearen edukia.

Iraupena:

50 minutuko 3 saio, ikasgelan egitekoak.

Programa

1. saioa: Zer zerikusi dute bankuek eta pobreziak?

2. saioa: Nola funtzionatzen dute mikrofinantzek?

3. saioa: Mikrofinantzen eragina

Baliabide materialak

Unitate didaktikoaren saioak eskola-taldearen gelan bertan garatuko dira.

Beharrezko materialak Interneterako konexioa duen ordenagailua, proiektorea edo pantaila eta bozgorailuak dira. Materialetako batzuk inprimatu edo fotokopiatu egin beharko dira ikasleei eskura emateko, batez ere talde-laneko dinamiketarako. Dinamika batean gometsak (pegatinak) ere erabiliko dira.

2

SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Unitate didaktiko hau Hezkuntza Finantzario Kritikoaren Euskal Sareak —Finantzaz Haratago— egindako hezkuntza-proposamen bat da, bereziki Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken ikasturtean eta Batxilergoko bi mailetan ari diren ikasleei zuzendua.

Unitate didaktiko honen helburua da ikasleak sentsibilizatzea finantzek gure gizartean duten lekuari buruz, eta, zehazki, kredituaren potentzialtasunei eta arriskuei buruz, bereziki diru-sarrera txikiak dituzten pertsonekin. Unitateak mikrofinantzak osatzen dituzten finantza-tresnen multzoa erreparasatzen du, Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeetan garapen-tresna diren heinean.

Unitate didaktikoaren euskarri den gida irakasleentzat diseinatuta dago, unitate didaktiko honetako materialak eta edukiak zuzenean ikasgelan aplikatzeko aukera izan dezaten.

Mikrofinantzak fenomeno mundiala dira. Joan den mendeko 80ko hamarkadatik aurrera, mikrofinantza-erakunde eta -programak ugartu egin dira. Finantza-tresna horiek diru-sarrera txikiko ehunka milioi pertsonaren zerbitzura jartzen dira mundu osoan, bereziki

herrialde eta komunitate behartsuenetan. Mikrofinantzak funtsezko elementutzat hartu dira pobrezia aurkako borrokan, nahiz eta, batzuetan, haien jarduteko gaitasuna gehiegi balioetsi den. Pobrezia eta bidegabekeria kausa anitzeko eta dimentsio anitzeko errealitateak dira. Finantza-zerbitzu egokiak ez eskuratzea arrazoi horietako bat da, eta, ondorioz, finantza-tresna egokiak hornitzeak oso eragin onuragarria izan dezake diru-sarreraren sorrera hobetzeko eta zailtasun gehien dituzten pertsonen zaugarritasunak murrizteko. Hala ere, kreditua eta finantzak desorekarako eta egoera larriagotzeko elementuak ere izan daitezke bidegabekeriazko errealitateetan. Halaber, hori egiaztatu ahal izan dugu mundu mailan izan ditugun finantza-krisiekin eta finantza-erakundeek produktu konplexuak eskaini dizkietenean haientzat egokiak ote ziren ez zekiten pertsonen, gehiegi zorpetu direnei edo aurrezkien zati handi bat galdu dutenei.

Unitate didaktiko honen bidez, mikrofinantzen balio soziala berreskuratu nahi da. Horretarako, analisi kritiko bat egingo da, eskala handian baina zuhurtasunez erabiltzen direnean izan dezaketen benetako ahalmen eraldatzailea erakusteko.

Material hori ikasleen errealitatetik abiatzen da, eta ikasleen aurretiazko ezagutzetara, ulertzeko gaitasunera eta egungo errealitatera egokitzen da. Herritarren gaitasuna hezkuntzaren helburu funtsezkoenetakotzat hartzen lagundu nahi du. Horretarako, gaitasun kritikoa eta prestakuntza morala zeharkako elementu gisa txertatu nahi du hezkuntza-eta guztietan. Errealitate sozialari buruzko hausnarketa kritikoa egiten du, funtsezkoa baita gurearen gisako gizarte konplexuetan parte hartzea ahalbidetzen duten jokabideak

eta balio etikoak ikasteko. Eta, horrekin batera, esparru ekonomikoko alternatiba zehatz bat erakusten du —mikrofinantzak—, garapen handikoa, baina gure inguruan oso ezezaguna.

Ikaskuntza horiek, elkarrizketaren bidezko arrazionaltasunaren bitartez, gaztearen heldutasun moralaren prozesua sustatzen dute, eta autonomiaren eta herritarren parte-hartze kontzientearen maila gorenera iristea errazten dute.

3

METODOLOGIA

Irakasleak saioa gidatuko du, dokumentu honetan jasotako dinamikak eta materialak oinarritzat hartuta.

Finantzaz Haratago programaren laguntza ere eska daiteke, bai prestatzaileei laguntzeko, bai ikasleekin saioak dinamizatzeko.

Unitatea 50 minutuko hiru saiotan garatuko da, eta saio horiek bigarren hezkuntzako eta batxilergoko eskolen ohiko iraupenera egokituko dira.

Ikasleek posizio zentrala eta zeregin aktiboa hartuko dute prozesuan. Edukiak koherentziaz lotu beharko dira aldez aurreko ezagutzekin, eta ezagutza- eta pentsamendu-egitura berriak eraikitzen lagundu beharko dute. Edukiek ikasleak interpelatu beharko dituzte, eta dinamikek motibatu egin beharko dituzte parte-hartze aktiboko jarrera bat hartzeko, hori baita ikaskuntza sortzeko modurik eraginkorrena.



Oyendo, olvido

Viendo, recuerdo

Haciendo, aprendo



Horregatik, hainbat motatako jarduerak txandakatzen dituen metodologia planteatuko da: eztabaida-galderak, garapen teoriko laburrak, bideoak eta lekukotasunak, elkarrizketa taldeetan eta bateratzea eta sakontzeko eta finkatzeko baliabideak.

Saioretan zehar, ikasleak taldekatzeko hainbat modu proposatuko dira: bai talde bakar eta handi batean, bai azpitalde txikitik. Taldekatzeko modu horiek txandakatu egingo dira bi eskemen abantailak aprobetxatzeko. Taldekatze orokorrak galdera globalak pizteko edo ondorio orokorrak lortzeko aukera emango du; talde txikiagoetan, berriz, elkarrizketa irekiagoa eta bidezkoagoa sortuko da. Talde txiki horietan parte-hartze handiagoa izan dezakete kide guztiek eta ikaskuntza-prozesuaren protagonista senti daitezke. Nolanahi ere, talde txikiak ez dira nahitaez talde egonkorak izango saioetan zehar, dinamikek ez dutelako jarduera batzuen eta besteen lana lotu beharrik. Banakako jarduera batzuk ere proposatuko dira (irakurketak, hausnarketak, eta abar).

Materialen xedea ikasleen ikaskuntza-estiloarekin eta ohituta dauden estimuluekin bat etortzea da. Horregatik, proiektzioetara eta bideoetara joko da, irakurketa-material

laburrekin batera, irakaslearen azalpenerako euskarri gisa eta komunikatu nahi diren ideia asko argitzeko osagarri gisa.

Unitate didaktiko honen helburu nagusia da ikasleek mikrofinantzen ikuspegi praktikoa, osoa, konstruktiboa eta kritikoa izatea, aurreko ataletan adierazi den bezala. Horrez gain, edukiak eta deskribatutako metodologia kontuan hartuta, zeharkako gaitasun hauek garatzen ere lagunduko du:

- Gaitasun soziala eta herritartasuna
- Pentsamendu kritikoa
- Norberaren jokabideei buruz hausnartzea
- Egoera ahulean dauden pertsonetikiko enpatia eta elkartasuna garatzea
- Arrazionaltasun etikoa eraikitzea
- Unibertsaltasunaren ikuspegia
- Kausa anitzeko fenomenoak ulertzea
- Elkarrizketarako, argudiatzeko, entzuteko eta erantzuteko gaitasuna
- Lankidetzarako gaitasuna
- Hizkuntza-komunikazioa

4

EDUKIEN ESKEMA OROKORRA

Unitatea hiru saiotan egituratuko da. Saio bakoitza hainbat jardueraz osatuta dago. Atal honetan, hiru saioetako edukien eskema orokor bat agertzen da, eta hurrengo ataletan xehetasunez deskribatuko dira.

Jarduera bakoitzaren euskarri diren materialak didaktikoak eranskinean daude jasota.

Hona hemen hiru saioen edukien eskema:

Zk.	Jarduera	Iraupena	Baliabide didaktikoak	Baliabide materialak
1. SAIOA				
1.1	Zer gertatzen da finantza-zerbitzuak eskuratzeko aukerarik ez dugunean?	20'	1.1 eranskina	Ordenagailua, proiektagailua eta pantaila
1.2	Berdinak al dira mikroreditu guztiak?	30'	1.2 eranskina	Ordenagailua, proiektagailua eta pantaila. 1.2 eranskineko kasu praktikoko bakoitzaren kopia bat.
2. SAIOA				
2.1	Mikrofinantza-programa bat sortzeko erabaki-zuhaitza	50'	2.1 eranskina	Ordenagailua, proiektagailua eta pantaila. 2.1 eranskinaren kopia osoa, 5 pertsonako talde bakoitzarentzat.
3. SAIOA				
3.1	Bideoa – “El crédito de los pobres”	25'	3.1 eranskina	Ordenagailua, proiektagailua eta pantaila.
3.2	Zein da mikrofinantzen benetako inpaktua?	25'	3.2 eranskina	Ordenagailua, proiektagailua eta pantaila. 3.2 eranskineko inpaktu-baieztapen bakoitzaren kopia 1 Gometsak, 3 ikasle bakoitzeko

5

1. SAIOA:

ZER ZERIKUSI DUTE BANKUEK ETA POBREZIAK?

5.1 Saioaren helburuak

- Pobrezia finantza-zerbitzuak eskuratzearekin lotuta dagoela jakitea, besteak beste.
- Finantza-sistemak garapen inklusiboa nola bultzatzen dezakeen eta bidegabekeriak nola sakondu ditzakeen eztabaidatzea.
- Mikrofinantzetako oinarriko kontzeptuekin lehen harremana izatea.

5.2 Garapena

Garrantzitsua da lehenik saio hau egitea, hurrengo ataletarako testuingurua ematen baitu.

Iraupena, guztira: 50 minutu

Saioaren laburpena

Zk.	Jarduera	Iraupena	Baliabide didaktikoak	Baliabide materialak
1.1	Zer gertatzen da finantza-zerbitzuak eskuratzeko aukerarik ez dugunean?	20'	1.1 eranskina	Ordenagailua, proiektagailua eta pantaila
1.2	Berdinak al dira mikro kreditu guztiak?	30'	1.2 eranskina	Ordenagailua, proiektagailua eta pantaila. 1.2 eranskineko kasu praktikoko bakoitzaren kopia bat.

1.1 JARDUERA Zer gertatzen da finantza-zerbitzuak eskuratzeko aukerarik ez dugunean?

Lehen ariketa honen helburua mikrofinantzek zer onura sozial duten ulertzen laguntzea da. Horretarako, 6 unetan egituratuko da:

1. unea: 1. garapen jasangarriaren helburuari buruzko bideoa – pobreziaren amaiera

Bi minutuko bideo bat bistaratuko dugu, ikasleek ikus dezaten unitate didaktiko hau pobreziaren murrizketarekin eta bidegabekerien aurkako borrokarekin lotuta egongo dela.

2. unea: aldera ditzagun 3 mapa

Hiru diapositibatan munduko 3 mapa erakutsiko dira, herrialdekako datuekin. Lehenengoak pobrezian dauden biztanleen ehunekoa adierazten du, bigarrenak kontu korronterik gabeko pertsonen zifrak jasotzen ditu eta hirugarrenak kreditua lortzeko erraztasuna.

Amaitzeko, laugarren diapositiba bat egongo da, non mapak alderatuz ateratako ondorioak islatuko diren. Halaber, ikasleei zer ondorio ateratzen dituzten galdetu ahal diegu, diapositiba hori erakutsi aurretik.

3. unea: erabiltzen al ditugu banku- eta finantza-produktuak?

Jarduera hau gelako ikasle guztiekin batera egingo da. Bertan, bizitza arruntean banku- eta finantza-produktuak erabiltzen diren 5 egoera aurkeztuko dira. Egoera horietako bakoitzean, ikasleei eskatuko zaie adierazteko ea bankuko produkturen bat erabili behar den, eta, ahal bada, identifika dezatela zein. Amaitzeko, bi gardenki egongo dira, eta, horietan, zer ondorio atera daitezkeen

erakutsiko da: finantza-produktuak erabiltzen direla, beharrezkoak direlako, eta zer premiari erantzuten dien.

4. unea: zer gertatzen da finantza-zerbitzuak eskuratzeko aukerarik ez dugunean?

Ikasleentzako galdera irekia da, ikasgela osoan eztabaidatzeko. Ez dira erantzun zuzenak emango, ikasleek zer gertatzen den identifikatzea baita kontua, hain zuzen ere, lehen ikusi diren premiak ez direla betetzen,

eta finantza-zerbitzurik gabe zaugarriagoak garela eta baliabide gutxiago ditugula garapenerako eta bizitza osorako.

5. unea: zergatik dago finantza-zerbitzuetarako sarbide eskasagoa herrialde eta komunitate behartsuenetan?

Gardenki horretan, finantza-bazterketaren arrazoiak modu didaktikoan deskribatuko dira.

6. unea: zer egin daiteke finantza-bazterkeriaren aurka borrokatzeko?

Gardenki horrek erakusten du mikrofinantzak direla finantza-bazterketari erantzuteko bidea.

1.2. JARDUERA Berdinak al dira mikroreditu guztiak?

Talde-lanerako dinamika bat planteatuko da, 5 ikasleko taldetan. Talde bakoitzak orri bat jasoko du (aldez aurretik inprimatu behar da), pertsona batek zenbateko txikiko kreditu bat jasotzen duen egoera jakin batekin. Eta taldeari eskatuko zaio eztabaida dezala ea kreditu horrek premia pertsonalei erantzuten dien eta zer arrisku dituen. Lehenengo gardenkiak hausnarketarako lau galderak erakutsiko ditu.

Taldean 10 minutuko elkarrizketa izan ondoren, talde handian bateratze-lana egingo da. Talde bakoitzeko bozeramaile batek egoera kontatuko du, eta gogoetarako 4 galderei zer erantzun dieten azalduko du.

Amaitzeko, talde handian hitz egingo da, eta ondorio orokorretara iristen saiatuko da.

Azken gardenkiak ondorio horietako batzuk erakutsiko ditu, eta irakasleari laguntzeko izan daiteke, behar izanez gero.

5.3 Baliabide gehigarriak

3. BIDEOA

Jasangarritasun-minutuak.
Finantza-bazterketa. Mugarik gabeko ekonomialariak.

 BIDEOA IKUSI

RTVE INFORME SEMANAL

Microcréditos para vivir (Bizitzeko mikroredituak)

 BIDEOA IKUSI

6

2. SAIOA:

NOLA FUNTZIONATZEN DUTE MIKROFINANTZEK?

6.1 Saioaren helburuak

- Mikrofinantza-produktuak eta horien aplikazioak ezagutzea.
- Mikrofinantza-programak nola bideratu behar diren bereiztea, eraginkorrak izan daitezen.
- Garapenerako finantza-zerbitzuak emateko bideak eta erakundeak aztertzea.

6.2 Garapena

Iraupena, guztira: 50 minutu

Saioaren laburpena

Zk.	Jarduera	Iraupena	Baliabide didaktikoak	Baliabide materialak
2.1	Mikrofinantza-programa bat sortzeko erabaki-zuhaitza	50'	2.1 eranskina	Ordenagailua, proiektagailua eta pantaila. 2.1 eranskinaren kopia osoa, 5 pertsonako talde bakoitzarentzat.

2.1 JARDUERA Mikrofinantza-programa bat sortzeko erabaki-zuhaitza

Ariketa honen helburua ikasleek mikrofinantzei buruzko oinarritzko kontzeptuak ezagutzea da, egoera jakin baterako mikrofinantza-programa bat diseinatzen duen bitartean.

1. unea: pobrezian dauden pertsonen beren dirua nola erabiltzen duten azaltzen duen bideoa

Hiru minutuko bideo bat ikusiko dugu, non erakusten den diru-sarrera txikiko pertsonen, beren dirua erabiltzerakoan, batzuetan ez dituztela erabiltzen diru-sarrera handiagoak dituzten pertsonen erabiltzen dituzten logika berberak.

Helburua da ikasleek beren burua zabaltzea eta gainerako jarduerarako modu irudimentsuagoan pentsatu ahal izatea.

2. unea: mikrofinantza-programak bete ditzan nahi ditugun premiak aukeratzea

Une horretatik aurrera, ikasgela 5 ikasleko taldetan banatuko da. Talde bakoitzak inprimatuta (edo ordenagailu baten bidez) jasoko du gida didaktiko honen 2.1 eranskinaren aurkezpena.

Hala, 4., 5. eta 6. diapositiban 11 egoera azalduko dira, non mikrofinantza-produktu

batek pertsona batzuen bizitza hobetzen lagun dezakeen, premia jakin batzuk asetzen dituelako. Talde bakoitzak 11 egoera horietako bat aukeratu beharko du, hortik abiatuta egoera horri hobekien erantzungo dion mikrofinantza-programa diseinatzeko eskatuko zaiolako.


3. unea: programaren ezaugarriak definitzea

Taldeak 7 galderaren bidez egingo du lan:

1. Zein da tresnarik eraginkorrena?
2. Zenbat pertsonarentzat?
3. Zer zenbateko?
4. Zer epe?
5. Zer interes edo komisio?
6. Zer gertatzen da kreditua itzultzen ez badute?
7. Zer erakunde behar dugu?

Galdera bakoitza diapositiba batean agertuko da, eta, diapositiba horretan, azalpen-ohar batzuk. Horiek galderari erantzuten lagunduko diete, eta, hala, mikrofinantzen kontzeptu garrantzitsuenak ezagutzen hasiko dira. Ezagutzak praktikan jartzen dituzten neurrian eskuratzea da helburua, ikaskuntza naturalagoa izan dadin.



Galderen amaieran, honako txantiloia hau egongo da, eta bertan erantzunak bete daitezke.



Gure programarako txantiloia

Erantzun beharreko premia:

Zein da tresna?	Zenbat pertsonarentzat?	Zer zenbateko?
Zer epe?	Zer interes edo komisio?	Zer gertatzen da itzultzen ez badute?
Zer erakunde behar dugu?		

4. unea: bateratzea

Saioaren azken 10 minutuetan talde bakoitzak 2 minutu izango ditu bere lana azaltzeko eta gainerako taldeen galderak eta iruzkinak jasotzeko.

6.3 Baliabide gehigarriak

Zer da banku komunal bat?
Gure aztarnak.

 BIDEOA IKUSI

Badakizu zer den Errotazio Funts Solidarioa? Sabia Centro

 BIDEOA IKUSI

Mikrofinantzari baten adibidea.
Acaproducta (El Salvador)

 BIDEOA IKUSI

Mikrofinantzari baten adibidea
Fonkozé (Haití)

 BIDEOA IKUSI

**Iparraldeko mikrokreditu-
programa baten adibidea**
Hernaniko esperientzia.

 BIDEOA IKUSI

Zer dira mikroseguruak?
Paraguaiko Banku Zentrala.

 BIDEOA IKUSI

7

3. SAIOA: MIKROFINANTZEN ERAGINA

7.1 Saioaren helburuak

- Mikrofinantzak erabiltzen dituzten pertsonen benetako istorioekin kontaktua izatea, haiengan duen eragina ikusteko.
- Mikrofinantzen benetako inpaktua modu kritikoan nola aztertu aztertzea.

7.2 Garapena

Iraupena, guztira: 50 minutu

Saioaren laburpena

Zk.	Jarduera	Iraupena	Baliabide didaktikoak	Baliabide materialak
3.1	Bideoa – “El crédito de los pobres” (Pobreen kreditua)	25'	3.1 eranskina	Ordenagailua, proiektagailua eta pantaila.
3.2	Zein da mikrofinantzen benetako inpaktua?	25'	3.2 eranskina	Ordenagailua, proiektagailua eta pantaila. 3.2 eranskineko inpaktu- baieztapen bakoitzaren kopia 1 Gometsak, 3 ikasle bakoitzeko.

3.1 JARDUERA Bideoa: “El crédito de los pobres”

“El crédito de los pobres” bideoa ikusiko da

 BIDEOA IKUSI

21. minutura arte bakarrik.

Bideo horretan, mikrokreditua jasotzen duten pertsonen beren esperientzia kontatzen dute lehen pertsonan. Eta, horiekin batera, mikrokreditu-programak sortzen aitzindariak diren pertsonen ere kontatzen dute nola egin duten.

Bideoa oso ona da mikrofinantzekin, eta ez du zalantzan jartzen nahi ez diren albo-ondorioak izan ditzakeenik edo iragarritako pobrezia murriztea lortu ez duenik. Saio honetako bigarren ariketaren bidez, mikrofinantzen benetako eragina aztertuko dugu.

3.2 JARDUERA Zein da mikrofinantzen benetako inpaktua?

1. unea: eta guk zer deritzogu horri?

Horman mikrofinantzen inpaktuarekin lotutako 9 baieztapenen kopiak jarriko dira, DIN A4 tamainakoak. Ikasle bakoitzak 3 gomets izango ditu, eta garrantzitsuenak iruditzen zaizkion 3 baieztapenetan itsatsiko ditu, eragina baloratze aldera.

Bozketen amaieran ikusiko da zeintzuk diren bozkatuenak eta ikasleei galdetuko zaie zergatik bozkatu dituzten horiek.

2. unea: azken hausnarketa

Bederatzi baieztapenetatik abiatuta, mikrofinantzen eragina aztertzeko egitura bat aurkeztuko da 3 diapositibatan.

7.3 Baliabide gehigarriak

Erakusketa birtuala.

Garapen positiboa

Hegoaldeko pertsona pobretuei
beste begirada bat

 BIDEOA IKUSI

Irakasleentzako prestakuntza

Mikrofinantzei buruzko sarrera

 BIDEOA IKUSI

**Online ikastaroa mikrofinantzei
buruzko sarrera, garapen-tresna
gisa**

 BIDEOA IKUSI

**Mikrofinantzek gizartean duten
eragina neurtzeko metodologia
Progress out of Poverty Index**

 BIDEOA IKUSI

8

ONDORIO GISA

Unitate didaktiko honen bidez, mikrofinantzen mundua bigarren hezkuntzako azken ikasturteetako ikasleei hurbiltzen saiatu gara. Eta praktikatik, hausnarketatik eta eztabaidatik egin nahi izan dugu hori. Jarduerak ikasleak protagonista izateko, eztabaidatzeko, ikertzeko, zalantzan jartzeko eta ikaskuntza-prozesuaz gozatzeko helburuarekin diseinatu dira.

Unitatearen diseinuan, kontzeptu teorikoen norabide bakarreko igorpenetik ihes egin da une oro, baita diskurtso lerratu eta ez oso kritikotik ere. Finantzaz Haratago, hain zuzen ere, hezkuntza finantzario kritikorako sare bat da, eta susmoaren eta tentsioaren espiritu hori aplikatu behar da, baita ere, tresna finantzarioetan; izan ere, tresna horien helburua izan behar du, eta inpaktu sozial positiboa sortu behar du.

Espero dugu asmo horiek guztiak aurrera eramateko gai izatea. Espero dugu, halaber, irakasleek material hori beren egiten jakingo dutela, eta erraz moldatuko dutela ikasleen errealitatera hobeto egokitu dadin.

Finantzaz Haratago osatzen dugun erakundeok (Elkarcredit, Oikocredit Euskadi, Mugarik Gabeko Ekonomialariak eta Finantza Etikoetako Euskal elkartea) unitate didaktiko hau edozein argibide edo iradokizunetarako erabili nahi duten irakasleen esanetara gaude, baita, ahal dugun neurrian, unitatea zuzenean ikasgelan garatzen laguntzeko ere. Gure webgunean (<https://finantzazharatago.org/>) gurekin harremanetan jartzeko bideak aurki daitezke.



www.finantzazharatago.org